

HONDAKIN BATZORDEA

Data:2014-09-29

Ordua: 19:00 – 21:15

Lekua: UDALETXEA

BERTARATUTAKOAK

- ✓ Ignacio Aguerrea (Elizondo)
- ✓ Carlos Peña (Biak Igantziko langilea)
- ✓ Mikel Ortega (BILDUko zinegotzia)
- ✓ Izaskun Gortari (Oronozko herria)
- ✓ Carlos Garaikoetxea (Hirusta)
- ✓ Miren Meoki (Hondakin teknikaria)

GAI ZERRENDA

- 1.-Aurreko aktaren onespenea
- 2.-konpost kanpaina behin behineko emaitzak
- 3.-Zaborrontzien bilketa eta kale garbiketa kontratu berria
- 4.-Ordenantza fiskal berriak
- 5.-CRANAKo tailerrak eskoletan
- 6.-Uholdeak, BM gibelaldea eta poligonoak, zaborrik ez botatzeko kartelak...
- 7.-Galde/ eskeak.

1. Aurreko aktaren onespenea.

Aho batez onetsi da.

2. Konpost kanpaina. Behin behineko emaitzak

Aurtengo konpost kanpaina amaitzear dagoela aipatzen da. Azken karakterizazioak dira falta direnak. Kanpainaren haseran hondakinen karakterizazioak egin ziren bezala, orain ere berdina egingen dela aipatzen da kanpainaren eragina baloratzeko intentziaz. Horien emaitzak ditugunean, datuak argitaratuko direla aipatzen da eta kanpainari amaiera emateko Zirika Zirkus antzerki taldearen “*Konpost eroak*” antzezlan familiarra ekartzeko asmoa dagoela ere erraten da. Antzezlanaren 26an izanen da Irurritako Gizarte bilgunean.

Emaitzei dagokionez, Udalean kontent gaude, ia 300 pertsona hurbildu dira informazio bileretara eta ia 400 formakuntza bileretara. Bilerak otsaila eta ekaina bitartean izan dira eta oraindik ere jendeak izena ematen jarraitzen duela aipatzen da. Kanpaina honetan 500 famili baino gehiagok eskatu dute konpostagailua eta dagoeneko 800 familitik goiti dira Baztanen beren hondakin organikoak konpostatzen ari direnak. Baztango familien %26,64ak konpostan parte hartzen duela aipatzen da eta datu hau nahiko ongi dagoela ere aipatzen da. Normalean, bolondreski egiten diren ekintza hauetan gehienez %30eko parte hartzera iristen dela aipatzen da (bertze lekuetako esperientzietatik ateratako datua da hau), beraz, normaltasunaren barnean gaude. Datua hauek ateratzeko familiko 2,5 pertsonako ratioa erabili dela aipatzen da. Hau honela, 4 familitik batek konpostan parte hartzen du Baztanen. Herrika egon diren izen emateak ere aipatzen dira.

Ignaciok haragi eta arrain hondarren kontua ateratzen du eta arazorik gabe konpostatu daitezkeela aipatzen da.

Carlos Peñak galdetzen du ia bilketan nabaritu den zerbait eta bilketa datuak erakusten dira. Trasferentzi plantara eramandako hondakin kopuruak beherako joera duela ikusten da azken

hilabeteotan eta beheraka hau nabariagoa izan da apirila eta maiatzako hilabeteetan. Uztaila izan da, joan den urteko datuekin alderatuz igoera jasan duen hilabete bakarra baina hilabete honetan uholdeak izan zirela kontutan hartuz normal ikusten da. Dena den, azken fomapuntua bilera eta materialeen banaketa ekainean egin zela kontutan hartuz, oraindik emaitzak ikusteko goiz dela aipatzen da. Gainerako frakzioen bilketak ere gora egin duela aipatzen da, batez ere ontzi arinen bilketak. Carlos Peñari galdetzen zaio ia nabaritu duten beren eguneroko lanean eta baiezkora erraten du. Datuek ere honela diote (datuak erakusten dira).

Carlos Garaikoetxeak azpimarratzen du kanpainaren ondoren jarraipen tekniko bat egitea oso garrantzitsua dela. Auzo konpostaren jarraipena dagoeneko egiten dela eta oso ongi funtzionatzen dutela aipatzen da. Etxeko konpostari dagokionez, datorren urtean aurten izena eman dutenen erdiari bisita egitea eta bertze erdiari galdeketa telefonikoa egitea aurreikusten dela aipatzen da.

Honen ondotik organikoaren kudeaketaren inguruan sortzaile haundien kontua ere martxan dagoela aipatzen da. Momentuz gai organikoaren sortzaile haundiak direnen zerrenda bat egin dela eta hauei inkesta batzuk egiten ari garela aipatzen da. Helburua hauek sortzen duten hondakin organiko kantitatearen ideia bat egitea da eta bilketa berezitu bat proposatzekotan hauen parte hartzeko interesa eta beharrak aztertzea. Baztanen sortzaile haundi gehienek partikularren aldetik bilketa badutela ikusi dela aipatzen da. Jendeak bilketa egiten du zerriak bazkatzeko. Beraz, oraindik inkesta guztiak egiteke badaude ere, momentuz bilketa posible izan daiteke supermerkatu haundietan, beti ere, Bortziri eta Malerrekarekin elkarlanean egitekotan.

3. Zaborrontzien bilketa eta kale garbiketa kontratu berria.

Gaur egun indarrean dagoen kontratua abenduan akitzen dela aipatzen da eta aitzineko kontratuarekiko Udaletik planteatzen diren hobekuntzak edo lan gehigarriak aipatzen dira, bertzeen artean kontenedore soterratuaren mantenimendua, frontoi eta eskola atarien garbiketa eta auzo konpost guneen jarraipena sartuko da kontratu berrian. Udalak enpresa sozialei mugaturiko kontratua ateratzeko asmoa duela aipatzen du Mikelek eta Carlos Peñak, bilketa enpresa bateko langile bezala, Udalaren erabakia eskertzeko dela adierazten du.

Carlosek ere aipatzen du ia posible den kimaketa hondarren bilketa sartzeko kontratu honetan, behar duten sortzaile haundiei biltzeko eta hau birrindu ondoren auzo konpost guneetan erabiltzeko.

Erosi den birringailu haundia jardinetakoek (Tasubintsakoek) erabiltzen dutela erraten zaio eta zerbitzu hau beraiek egitea egokiagoa ikusten dela. Mirenek aipatzen du herri guztietan hondakin berdeen bilketa puntuak jartzea izango litzatekeela egokiena eta bertako kimaketa hondarrak birrindu ondoren auzo konpost guneetan erabiltzea.

Carlos Garaikoetxeak erreka zikinkerien gaia ateratzen du, duela gutxi errekatik barka batean ibilbidea egin zutela eta Askape eta Bertiz arteko zatian hainbat edukiontzi hautsi, txapa, kupel eta antzeko hondakin haundi aurkitu zituztela. Errekako ihardueraren bat planteatu zitekeela aipatzen du, BKZ edota antzeko enpresaren batekin erreka jeitsiera bat proposa daitekeela erraten du bertako zaborrak lokalizatu ahal izateko eta ondoren auzolanean hauen garbiketari ekiteko. CRANAtik ibaietan bolondresekin egiteko aktibitateak eskaini direla aipatzen du Mirenek, eta behar bada aukera hori aprobeitza zitekeela zerbait egiteko, baina CRANAk, beraien egoera dela eta aurten egin beharrekoa dela aipatzen da eta zerbait antolatzeke denboraz justu gabiltzala.

4. Ordenantza fiskal berriak

Baztango Hondakinen Ordenantza Fiskal berriak aurten indarrean sartu direla aipatzen da. Aldaketaren berri emateko etxeetara notifikazio bat bidaltzeaz gain, ediktu bidez ere egin dela aipatzen da. Orain kobrantzak seihilekoak izatera pasako dira eta distantziaren araberako hobariak ere egonen dira. Jendea hobariak eskatzen ari dela aipatzen da eta zenbait erreklamazio eta kexa ere egon direla. Baserrietako jendea da gehien kexatzen dena, orain arte ordaintzen ez zutelako eta hurbildu diren gehienak diotenez, zaborrik sortzen ez dutelako edota zerbitzurik ez dutelako dira kexu. Zerbitzua denok dugula argi uzten zaie eta gainera erabili beharreko zerbitzua dela, batzuentzat

kontenedoreak urrun daudelako jarri dela distantziaren araberako hobarien sistema martxan. Baztanen zenbait kasu berezi eta azertu beharrekoak daudela ere aipatzen da. Adibide gisa: edukiontzia oso urrun dituzten jatetxeak (Lezeta eta Burkaitzko bentak...) edota hurbiltasunagatik beren hondakinak Baztandik kanpo botatzen dituztenak: Zugarramurdin, Urdazubin, Itsasun... Baztango Udalak Urdazubiko Udalarekin hitzarmen bat sinatu du aurten eta bertzeen artean, Baztango eremuan kokaturiko zenbait etxebizitzetarako (Urdazubiko zerbitzua erabiltzen dutenei) hondakin tasa Urdazubin kobratzeko akordioa hartu dela aipatzen da.

5. CRANako tailerrak eskoletan

Carlos Garaikoetxeak aurten ere CRANak Udal eta Mankomunitateen bitartez ikastetxeei eskaintzen dizkien hondakinei buruzko tailerrak eginen direla azaltzen du. Hirusta enpresa arduratuko da tailer hauek egiteaz eta Baztanen DBH 1. maila edo baliokideko ikasleei 6 tailer eskainiko zaizkiela azaltzen du. 6 tailer hauetatik 3 %100ean finantziaturik daude eta gainerako 3ak %70eko finantziazioa daukate. CRANaren egoera dela eta behar bada tailer hauek, bide honetatik behinpin, egiten diren azken urtea izan daitekeela komentatzen du.

6. Uholdeak, BM gibelaldea eta poligonoak, zaborrik ez botatzeko kartelak...

Gai hauek gaineratik aipatu dira:

- Uholdeak Baztanen: Uholdeen ondoren Merkatuzelain pilotutako hondakin guztiak Tuterako zabortegira eraman zirela aipatzen da. Gure hondakin ez birziklagarriak bertan lurperatzen ditugu eta harainoko garraioa, nola bertako isurpen-tasa Partzuergoak ordaintzen du normalean. San Ferminak zirela eta Hondakinen Partzuergoa itxita zegoen egun haietan eta extraofizialki bertako teknikariarekin solastu eta uholdeetako hondakinak Tuterara eramateko aholkatu zigun, hori bai, harainoko bidaiak guk antolatzeke, ahalik eta kamioi haundienak erabiliz, gastuak murrizteke. Azkenean Elizondotik 15 trailer pasatxo atera zirela komentatzen da eta orain Partzuergoarekin tira-biran gabiltzala gastu hauek bere gain hartu nahi ez dituelako. Momentuz ezezkoaren arrazoiak idatziz eskatu zaizkio Partzuergoari.
 - BM gibelaldea eta poligonoak: Oso leku zikinak direla eta BM gibelaldea batez ere egun hauetan zaborrez gainezka egon dela komentatzen da. Garbiketa sakona egin du Udalak eta zaborrik ez botatzeko kartela jarri dela ere aipatzen da (traste haundien, hondakin berdeen eta obra hondakinen inguruko informazioa emanez). Leku hauetan harreta berezia jartzearen garrantzia aipatu da. Bilketa eta garbiketa zerbitzukoak, baita Udaltzainak eta Hondakin teknikariak ere adi egoteko konpromezua hartu dutela aipatzen da. Carlos Peñak kamarak edota gaueko bigilantzia txanda bat jarri beharko litzatekeela aipatzen du eta lehendabiziko bati isuna jarriz gero, ez dela berriz gertatuko aipatzen du.
 - Zaborrik ez botatzeko kartelak: Erratzuko alkateak eskatuta, herrietako leku konkretuetan (zaborra pilatzen den puntuetan) jartzeko “zaborrik ez botatzeko” kartelak egin direla aipatzen da. Behar dituzten herriek Udalean eskuragarri dituztelarik.
 - Anizen hitzaldi informatiboa: Aurten martxan paratzea aurreikusten zen Anizko eta Berroetako bilketa sistema berezia bertan behera geratu da momentuz denbora faltagaitik eta erabaki honen aitzinean Aniztarrak penatuta agertu direla aipatzen da. Hau azaltzeko eta birziklapenaren inguruan dituzten zalantzak argitzeko bilera informatibo bat eskatu dutela aipatzen da. Datozen egunetan hondakin teknikariak Aniztarrekin, beraien zalantzak
-

argitzeko bilera informatiboa eginen duela aipatzean da.

7. Galde/ eskeak.

Carlos Peñak aipatzen du Udalak erosi dituen azken edukiontzi horiak oso ongi daudela , beraiendako oso erosoak direla eta ongi legokela, erosi aurretik bilketan aritzen direnekin kontsultatzea.

Carlosek dio baita ere, eskertzekoa dela silo plastikoen afera konpondu izana, hau da, baserritarre zerbitzua ematen jarraitzeko plastiko mota hori biltzen duen enpresa aurkitu izana. Mirenek aipatzen du Adunako (Gipuzkoa) enpresa bat plastiko hauek hartzeko prest agertu zela, baina beti ere garbiak entregatzekotan. Udalak mezu hau zabaldu duen arren, normalean, ez direla garbiak biltzen aipatzen da eta Carlosek dio orain Adunan hartzen dituztela, baina zikinak hartzekotan guri ordaintzea tokatzen zaigula eta garbiak joatekotan plastikoengatik ordaindu egiten digutela. Carlosek aipatzen du baserritarrekin solastuz, garbiak biltzea lortu daitezkeela, ez duela zaila ikusten. hauek hormigoi gainean pilatuz eta ur piskat pasatuz garbiak bildu daitezkeela.
